

Ategorrieta Berria bidean da

Askok eta askok ikusiko zenuten moduan, martxa onean doaz aurrera Ategorrieta Berriaren eraikuntzalanak. Egunetik egunera ikus daitezke aurrera-pausuak, eta Ikastola osatzen dugunon gogoia ere egunetik egunera handiagoa da.



Basoeskola

Iazko ikasturtean, COVID 19aren ondorioz ezin izan genuen Basoeskola proiektu pilotua martxan jarri, baina lanean jarraitu dugu eta datorren astean hasiko dira HH5eko ikasleak proiektu honetan, Ikastolaren eta EkoGunearen arteko elkarlanari esker. [Hemen](#) duzue informazio gehiago.



Zurriola Ikastola ere Euskaraldian partaide

Aurtengo Euskaraldiak berezitasun bat du duela bi urtekoarekin alderatuta: herritarrok indibidualki parte hartzeaz gain, entitateei ere zabaldu zaie parte hartzeko aukera. Eta, noski, Zurriola Ikastolak hasieratik eman zuen izena! Datozen asteetan emango dizuegu parte-hartze horren berri zehatzago.



Korrikaren 22. edizioa atzeratu dute

Bi urtez behin zeharkatu ohi du Euskarak Euskal Herria korrika, baina bizi dugun osasun egoerak hala behartuta, 2021ean ospatzekoa zen Korrikaren 22. edizioa 2022 urtera atzeratzeko erabakia hartu du AEK-k. [Hemen](#) duzue informazio gehiago.



OHARRAK / AGENDA:

- **HH2:** Guraso bilera. [Txostena](#).
- **HH3:** Guraso bilera. [Txostena](#).
- **2019an jaiotako senideen aurrematrikulazioa:** [Galdetegia](#).
- **Eusko Jauriaritzako Bekak:** Urriaren 9tik azaroaren 9ra. [Zirkularra](#). [Boletina](#).
- **Atzerrian hizkuntzak ikasteko bekak (DBH3tik BATX2ra):** Covid19 dela eta, Hezkuntza Sailak aurtan ez du atzerrian hizkuntzak ikasteko bekarik emango.
- **Zerbitzuetako langileen lan-poltsa (zaintza, garraioa, garbiketa edo jangela):** [Galdetegia](#).
- **Euskaraldia:** [Izen-ematea](#) zabalik.

EUSKARALDIA

GEHIAGO, GEHIAGOREKIN, GEHIAGOTAN
Azaroaren 20tik abenduaren 4ra

 itzuli



